

SPOOK SCHOOL

MOTHMAN

SIT'S ERRALDOIAREN GORDELEKUA

PETE
JOHNSON

Irudiak
Tom Percival

Itzulpena
Miren Ibarluzea



Lehenengo kapitulua
Esku bat airean



Begiak igurtzi nituen, eta adi-adi begiratu nuen. Zerbait zetorren nigana, airean: esku bat zen.

—Ene! —egin nuen hasperen.

Esnatu berri nengoen. Zer ote zen? Ez nuen ideia izpirik ere. Ilunegi zegoen ondo ikusteko. Hara hor, esku bat zen!

Eskua hegaka zebilen nire inguruan.

—Aupa, eskutxo! —geldiarazten saiatu nintzen.

SPOOK SCHOOL

Zur eta lur gelditu nintzen, eskuak erantzun egin baitzidan.

—Ai, ai, ai, barkatu. Zera... edozer dela ere, lasai, ez beldurtu —esan zuen.

—Ez, noski, —esan nion nire buruari —leku arraro batean nago, eta esku berbaldun bat dut lagun. Edonola ere, ez dago beldurtzeko arrazoirik. Hara bestea!

Berriro hasi zen hizketan:

—Presta zaitez orain datorrenerako!
—jarraian, beste esku bat agertu zen, eta bi hanka, eta gorputz bat. —Zer deritzozu?
—esan zuen; bere buruaz harro zegoela zirudien.

—Ooso ona! —egin nuen hasperen.
—Baina, burua falta duzu.

—Ene, beti ahazten dut! —egin zuen irri ahotsak.

Nik ere barre antzekoa bota nuen.



SPOOK SCHOOL

Handik gutxira, aurpegi bat agertu zen iluntasunean. Nire adineko mutiko baten aurpegi atsegina zen: begi marroi irritsuak eta irribarre zabal alaia zituen.



—Uste nuen gutxiago beldurtuko zinela ni gutxika-gutxika ikusita.